

*Eskola Liburutegien bilduma-  
ko sail urdinak (Blitz Hezkuntza  
Departamentuan) helburua du  
Nafarroako eskola liburutegien arduradu-  
nei laguntza ematea beren liburutegiak  
antolatzeko lanean.*

Sail honetako 6. zenbakiak Nafarroako  
eskola liburutegien gaurko egoera  
aztertzen du, izandako emaitzak 1999ko  
azterlaneko emaitzekin konparatu, eta  
hemendik aurrerako hobekuntza  
ildoak ezartzen ditu.

**BLITZ**  
Ratón de biblioteca



6

Eskolako  
Liburutegiko  
Bilduma  
sorta urdina

# Nafarroako eskola liburutegiak 1999 - 2006



Nafarroako  
Gobernua



## ⑥ **Blitz** sorta urdina

.....

**Nafarroako eskola liburutegiak  
1999 - 2006**

BILDUMAREN ARDURADUNA  
Curriculum Diseinu eta Garapenerako Bulegoa

ARGITARATZAILEA	Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua
TESTUA	M <sup>a</sup> Antonia del Burgo eta Ana Bernal
DISEINUA	Asís Bastida
INPRIMAKETA	Zubillaga
L.G.	NA: 2.525/2007
I.S.B.N.	978 - 84 - 235 - 3005 - 2

**Nafarroako eskola liburutegiak  
1999 - 2006**



Nafarroako Gobernua  
Hezkuntza Departamentua



## AURKEZPENA

2006ko maiatzean Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa onetsi zelarik, geroztik hainbat ekimen sortu dira ikastetxeetako liburutegiak sustatzeko, bai Hezkuntza Ministerioaren aldetik eta bai autonomi erkidego askotatik ere.

Mintegiak, jardunaldiak, dirulaguntzak eta sariak bata bestearen ondotik joan dira ikastetxeetako liburutegietan jardunbide onak aztertu eta faboratzeko, ahalik eta lasterren irakaskuntza hobetzeko benetako pizgarri eta akuilagarri izan daitezten.

Bilera eta saio horietan maizenik entzuten diren ondorioak izaten dira, batetik, arau-esparru komuna sortu beharra, politika eragingarriak eta iraunkorrak gauzatzea bermatzeko, eta, bestetik, epez epe ikastetxeetako liburutegien diagnostikoak egin beharra, ekimenok, benetako premien arabera moldatu ahal izateko.

Bi eskaera horiei erantzun bat emateko, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak honako esteka berria sartu du eskola liburutegietarako bere webgune berrian: **Nafarroako eskola liburutegiak. Estatuko sarea** (<http://www.pnte.cfnavarra.es/bibliotecasescolares/navarra.html>). Esteka horretan, alde batetik, zirriborro bat proposatzen da denek nahi dugun lege esparru komun hori eratzeko, nahi duenak, ebaluatu, partekatu edo aldatu dezan; eta, bestetik, orain aurkezten dugun Blitz berriaren bertsio elektronikoa ere eskaintzen da (Nafarroako eskola liburutegiak: 1999-2006).

Eskertu nahi nioke bere dedikazioa kargu honetan aitzindari izan dudan Luis Campoy Zueco jaunari, bai eta bere laguntzaile taldeari. Haiei eta beste askori esker, gauzatu ahal izan dira gizakiaren hezkuntzan hainbesteko garrantzia duen eginkizun ezinbesteko horretan, irakurketan, liburu honek azaltzen dituen aurrerapauso esperantzatsuak.

Sail Urdineko (Blitz Hezkuntza Departamentuan) seigarren zenbaki honetan Nafarroako eskola liburutegien gaur egungo egoera aztertzen da, hartutako emaitzak 1999ko azterlanekoekin konparatu eta hurrengo urteetarako hobekuntza lerroak ezartzen dira.

**Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea**

HEZKUNTZA KONTSEILARIA



## ÍNDICE

<b>■ Sarrera</b>		<b>7</b>
1.	Aurrekariak	7
2.	Eskola liburutegiak hobetzeko ekintzak. 1999-2005	8
3.	Azterlanaren metodologia	10
<b>■ Emaizak, azterlan erkatua 1999. urtearekin eta ondorioak</b>		<b>13</b>
<b>1. Liburutegi nagusia</b>		<b>14</b>
1.1	Emaizak. 2006. urtea	15
1.2	Azterlan erkatua. 1999. eta 2006. urteak	17
<b>2. Liburutegiaren arduraduna</b>		<b>17</b>
2.1	Emaizak. 2006. urtea	17
2.2	Azterlan erkatua. 1999. eta 2006. urteak	18
<b>3. Liburutegiaren antolamendua</b>		<b>19</b>
3.1	2006. urteko emaitzak	19
	A. Ordutegia	19
	B. Funtsa	20
	C. Erregistroa	21
	D. Katalogoa	21
	E. Normalizazioa	22
	F. Hedapena	22
	G. Mailegua	22
	H. Aurrekontua	22
3.2	Azterlan erkatua. 1999. eta 2006. urteak	23






<b>4. Liburutegiaren informatizazioa</b>	<b>27</b>
4.1 Emaizak. 2006. urtea	27
4.2 Azterlan erkatua. 1999. eta 2006. urteak	27
<b>5. Liburutegia eta ikastetxea</b>	<b>29</b>
5.1 Emaizak. 2006 urtea	29
5.2 Azterlan erkatua. 1999. eta 2006. urteak	29
<b>6. Eskola liburutegiak beste liburutegi batzuekin duen harremana</b>	<b>30</b>
6.1 Emaizak. 2006. urtea	30
6.2 Azterlan erkatua. 1999. eta 2006. urteak	30
<b>■ Ondorioak</b>	<b>31</b>
<b>1. 1999ko eta 2006ko emaitzen gainean</b>	<b>32</b>
<b>2. Hobekuntza proposamenak</b>	<b>33</b>
<b>■ BIBLIOGRAFIA</b>	<b>37</b>
<b>■ 1. ERANSKINA. Nafarroako eskola liburutegien gaineko araudia</b>	<b>39</b>
<b>■ 2. ERANSKINA. Inkesta eredua</b>	<b>44</b>







# SARRERA

## ■ 1. Aurrekariak

---

Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuko Dokumentazio Zentroak, lehen Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzu izenekoak, 1999an egin eta argitaratu zuten **Nafarroako eskola liburutegien egoeraren gaineko azterlan bat**, irakas-kuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publiko eta pribatu-itundu guztietara igorri-tako inkesta baten bidez.

Inkesta horren emaitzek balio izan zuten martxan jartzeko eskola liburutegiaren eredu berri bat ezartzeko helburua zuen ekinbide multzo bat. Eredu berri horre-tan ulertzen da eskola liburutegia antolaturiko baliabide zentro bat dela, zeinahi euskarri erabiltzen duena, curriculumeko arlo guztien ikaskuntza aktiboa lagun-tzen duena eta ikasle ororen hezkuntza berdintasunari laguntzen diona, norbe-raren gizarte mailari begiratu gabe.

Orduan bultzatu zen liburutegi ereduak erreferentzia markoa LOGSEk sustaturi-ko hezkuntza erreforman zuen, eta tresna egokia izan nahi zuen hezkuntza aldat-zeko lanean.

Azken urteetan, Europar Batasuneko hezkuntza sistemak aztertzen, ebaluatzen eta orientatzen ari dira beraien politikak, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko eta zabaltzeko asmoz, eta 2010. urterako ezagutzaren gizarte jantzia, dinamikoa, lehiakorra eta gizarte eta lurralde mailan kohesionatua erdiesteko asmoz. Izan ere, horrela adostu zen 2000. urtean *Lisboako Agendan*, ([http://www.europarl.europa.eu/summits/lis1\\_es.htm](http://www.europarl.europa.eu/summits/lis1_es.htm))

Lorpen horretara iritsi nahian, onetsi berria den Hezkuntzaren Lege Organikoak arau markoa ezartzen du egungo hezkuntza premiendako egokienak diren neu-rriak har daitezen, batez ere derrigorrezko irakaskuntzan, ondoko helburuetara iristeko: eskola porrota gaintitzea; irakurmenean, matematikan, zientzietan eta hizkuntzetan emaitzak hobetzea; informazioaren eta komunikazioaren teknolo-giak erabiltzea, bizikidetza positiboa sustatzea, ikasle etorkinak hezkuntza sis-teman integratzea, familien parte hartzea, etab.

Testuinguru honetan, eskola liburutegiaren papera, baliabide zentro gisa uler-tzen badugu, neurri horiek laguntzera dator, eta ikasle eta irakasleen esku uzten du espazio bat eta askotariko baliabideak, bai edukiari dagokionez (testu litera-rio eta informatiboak) eta bai formatuari dagokionez (idatzia, ikus-entzunezkoa edo multimedia), ikasleek eskolatze etapetako bakoitzean eskuratu behar dituz-ten funtsezko ikaskuntzak erraztuz.

Une honetan, Nafarroako eskola liburutegien gainean egindako azterlanak ondo-koa ahalbidetzen digu: jakitea zein den ikastetxeen benetako egoera aipaturiko helburuei dagokienez, aztertzea zein den 1999an aintzat harturiko alderdien hobekuntza izan den lorpen maila eta finkatzea ondoko ikasturteetarako helburuak.



## ■ 2. Eskola liburutegiak hobetzeko ekintzak. 1999-2005 urteak

.....

Nafarroako eskola liburutegien lehen azterlana argitaratu ondotik, Hezkuntza Departamentuak ekintza multzo bat garatu izan du, espazioa ekipatzeko eta irakasleei zein ikastetxei proposaturiko hobekuntza plana egiteko aholkua emateko. Hauek dira ekintza horiek:

- «Blitz, liburutegiko sagua» bilduma argitaratzea. 22 liburuxka dira, euskaraz eta gaztelaniaz, lana errazten dietenak bai liburutegiko arduradunei, antolatzeko eta dinamizatzeko lanean, eta bai gainontzeko irakasleei, baliabideak erabili ahal izan ditzaten eguneroko irakaslanean. Bost sail ditu bilduma honek:
  - Sorta urdina, Blitz Hezkuntza Departamentuan, irakasleei antolamendu lanetan laguntzeko.
  - Sorta berdea, Blitz Eskolan, eskolako liburutegia dinamizatzeko proposamenekin.
  - Sorta horia, Blitz Irakurtzearen alde, irakurriaren ulermena lantzeko curriculumeko arlo guztietan.
  - Sorta gorria, Blitz Idaztearen alde, idazmena lantzeko curriculumeko arlo guztietan.
  - Sorta laranja. Blitz ahozko adierazmenaren alde, mintzamina lantzeko curriculumeko arlo guztietan.
- Posterrak, egutegiak eta orri-markatzaileak argitaratzea, eskola liburutegiaren eredia sustatzeko eta Blitz bildumaren berri emateko.
- Kartelak egitea eta banatzea (euskaraz, gaztelaniaz, eta ele bitan), ikastetxean liburutegia, eta liburutegian espazioak eta apalategiak, non dauden kokatzeko.



- Posterrak, gaztelaniaz eta euskaraz, Sailkapen Hamartar Unibertsalarekin, balio dutenak liburutegjaren antolamendua normalizatu beharra zabaltzeko, nazioarteko liburutegi sistemaren bidez.
- Eskola liburutegien ABIES programa informatikoa, Hezkuntza Ministerioak sorturikoa, banatzea eta mantentzea. Ikastetxe guztiek dute eskura bai programa eta bai prestakuntza plana (oinarrizko mailan eta maila aurreratuan), eta horrekin batera, Internet bidezko kontsulta zerbitzua, sor daitezkeen arazoak berehalakoan konpontzeko. Gainera, programaren arduradunak Nafarroan telefonoz edo ikastetxean berean erantzuten dio zalantza orori. Programaren 316 lizentzia banatu dira, ia ikastetxe guztietan.
- Kableak instalatzea, ikastetxe barruan (hots, eskola liburutegian) konektatu ahal izateko ekipo informatikoak. Ekintza hori TRENZA egitasmoaren baitakoa da. Egitasmo hori Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren ekimen bat da, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuarekin elkarlanean. Egitasmo hori hezkuntzaren eremuan teknologia berrien erabilera sustatzeko diseinatu den plan estrategikoan kokatzen da. Egitasmo horri esker, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako liburutegien %100ek eta Haur eta Lehen Hezkuntzako %60k baino gehiagok dute gaur egun Internet liburutegietan.
- Altzari eta ekipo informatikoen hornikuntza liburutegi nagusietan. 2005-2006 ikasturtetik aurrera ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuak hornidura berariazkoa du eskola liburutegietarako, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak sustaturiko hobekuntza planari egindako ekarpen modura. Horretaz baliatu dira, gutxienez, erregimen orokorreko ikastetxe publikoen %15, gutxienez.
- Prestakuntza jarduerak eskola liburutegietan. Ikastaro arruntak (irakaslea bertan dela), on-line ikastaroak, eskola liburutegien gaineko mintegia, lantaldeak, informazio saioak eta prestakuntza ikastetxeetan. Eskola liburutegiak antolatzeke eta kudeatzeko prestakuntza jarduera berariazkoak egin dituzte 540 irakaslek (%10).
- Liburutegia martxan jartzeko hala eskatzen zaigunean, aholkularitza bertarata ematen dugu. Ikastetxe bisitatuen batez bestekoa urteko 16 ikastetxekoa da (%40).
- Eskola liburutegien webgunea. Lehen aipaturiko baliabide guztiekin, pdf euskarrian, eta bestelako baliabide interesgarriak irakasleendako. Abies 9.107 aldiz bisitatu dute, 2003ko urtarriletik hasita, autonomia erkidego guztietako liburutegi arduradunek.
- Irakurketa familian sustatzeko kanpainak: *Familia irakurzalea*. Foiletoen bidez, Haur eta Lehen Hezkuntzan seme-alaba eskolatuak dituzten familiei



proposatuko zaie hizkuntza gaitasunekin loturiko hainbat alderdi lantzeko. Honez gero 6 kanpaina egin ditugu:

- *Irakurtzen hasi, norbera hazi 1.* 2001-2002 ikasturtea
- *Ozenki irakurri.* 2002-2003 ikasturtea
- *Eskutik.* 2003-2004 ikasturtea
- *Lapitza zorroztu.* 2004-2005 ikasturtea
- *Irakurtzen hasi, norbera hazi 2.* 2005-2006 ikasturtea
- *Apalategia hornitu.* 2006-2007 ikasturtea

Gaztelaniaz eta ele bitan (gaztelaniaz eta euskaraz) argitaratzen dira. Joan den ikasturtean, 26.502 ale banatu ziren.

- Irakurketa sustatzeko sariak. Urtero iragartzen dira 2001-2002 ikasturtetik. Bi kategoria daude: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia; Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa. Bi sari ematen dira kategoria bakoitzeko; lehenbizikoa 1.200 eurokoa eta bigarrena 800 eurokoa, liburutegirako funtsetan gastatzeko. Gainera, akzesitak ematen dira; saria liburutan ematen da.
- Hezkuntza Berrikuntzako sariak. Urtero deitzen dira 2004-2005 ikasturtetik. D modalitatean eskola liburutegietako esperientziak eta ikastetxeetako irakurketa planak sartzten dira.



### ■ 3. Azterlanaren metodologia

.....

Azterlan honetarako aintzat hartu ziren araubide orokorreko ikastetxe guztiak, araubide bereziko ikastetxeak (arte eskolak, hizkuntza eskola ofizialak eta musika kontserbatorioak) eta helduendako ikastetxeak.

Inkesta 308 ikastetxeetara igorri zen, posta elektronikoko bidez, Irakasleei Laguntzeko Zentroetatik eta Hezkuntza Departamentutik, 2006ko bigarren hiruhilekoan.

233 erantzun jaso ziren: 206 ikastetxe publikoetakoak eta 27 ikastetxe pribatu-itunduetakoak. Horrek esan nahi du % 75ak erantzun zuela.

Erantzunak hustu ziren ikastetxeak irakaskuntzen arabera sailkatuz, 1 taulan azaltzen dugun moduan.



## 1. taula

IKASTETXEEN SAILKAPENA, EMATEN DITUZTEN  
IKASKETEN, IKASTETXE KOPURUAREN, JASOTZEN  
DITUZTEN ERANTZUNEN ETA EHUNEKOEN ARABERA

IKASTETXEEN SAILKAPENA	Ikastetxeak Guztira	Erantzun kopurua	Ehunekoa
<b>ARAUBIDE OROKORREKO IKASTETXEAK</b>	<b>298</b>	<b>226</b>	<b>%75</b>
■ <b>Titulartasun publikokoak</b>	<b>230</b>	<b>199</b>	<b>%86'5</b>
IP (Ikastetxe Publikoa)	174	153	%88
DBHI (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua)	14	11	%78,5
BHI (Bigarren Hezkuntzako Institutua)	40	34	%85
HB (Hezkuntza Bereziko ikastetxea)	2	1	%50
■ <b>Titulartasun pribatukoak</b>	<b>68</b>	<b>27</b>	<b>%39'7</b>
Soilik Haur edota Lehen Hezkuntzakoak diren ikastetxeak	23	6	%26
Soilik Bigarren Hezkuntzakoak diren ikastetxeak	16	3	%18,75
Haur edota Lehen Hezkuntzakoak eta Bigarren Hezkuntzakoak diren ikastetxeak	26	17	%65,38
Hezkuntza Bereziko ikastetxeak	3	1	%33
<b>ARAUBIDE BEREZIKO IKASTETXEAK*</b>	<b>7</b>	<b>4</b>	<b>%57</b>
Arte Batxilergoa ematen duten Arte eskolak	2	2	%100
Hizkuntza Eskola Ofizialak	3	1	%33
Musika kontserbatorioak	2	1	%50
<b>HELDUENDAKO IKASTETXEAK</b>	<b>3</b>	<b>3</b>	<b>%100</b>
<b>INKESTA EGINDAKO IKASTETXEAK, OSOTARA</b>	<b>308</b>	<b>233</b>	<b>%75</b>

\* Titulazio akademikoa duten ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxeak baino ez dira aintzat hartu.

Inkestak guztira 32 galdera ditu, eta 1999ko azterlanean erabili zen berdina da. Horrek ahalbidetu digu azterlan erkatua egitea, eta horrela, egiaztatu ahal izan ditugu eskola liburutegien hobekuntza egitasmoan izan diren aurrerapenak azken urteetan.

Galderak ondoko multzoetan bildu ditugu:

1. Ikastetxeko liburutegia:
  - Espazioa, erabilerak, beste liburutegi batzuk.
2. Liburutegiaren arduraduna:
  - Nor, ordutegia, prestakuntza, eginkizunak.
3. Liburutegiaren antolamendua:
  - Ordutegia, funtsaren ezaugarriak osaerari eta antolamenduari dagokionez. Liburutegiko zerbitzuak zabaltea.
4. Informatizazioa:
  - Ekipamendu informatikoa: programak eta ekipoak.
5. Ikastetxeko liburutegia:
  - Liburutegi egitasmoa, irakurketa plana eta irakurketa sustatzeko jarduerak.
6. Kanpo harremanak, beste erakundeekin eta beste liburutegiekin.


Erdietsitako datuen emaitzak bi ataletan antolatu dira:

- Emaitzak. 2006. urtea.
- Azterlan erkatua. 1999. eta 2006. urteak.

The background of the page is a dark grey color. It features a network of thin, white, slightly curved lines that crisscross the space. Interspersed among these lines are several bright white circular spots of varying sizes, some appearing as small dots and others as larger, more prominent circles. The overall effect is reminiscent of a star map or a complex web of connections.

EMAITZAK, AZTERLAN ERKATUA 1999.  
URTEAREKIN ETA ONDORIOAK





## LIBURUTEGI NAGUSIA

### ■ 1.1 Emaitzak. 2006 urtea

**Inkesta egin duten ikastetxeen %86k liburutegi nagusia dute.**

**2. taula**  
LIBURUTEGI NAGUSIA DUTEN IKASTETXEAK

Ikastetxeak	Jasotako erantzun kopurua	Liburutegi nagusia duten ikastetxeak	Ehune
IP (Ikastetxe Publikoa)	153	121	%79
DBHI (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua)	11	11	%100
BHI (Bigarren Hezkuntzako Institutua)	34	34	%100
Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoak	1	1	%100
Soilik Haur edota Lehen Hezkuntzakoak diren ikastetxeak	6	5	%83
Soilik Bigarren Hezkuntzakoak diren ikastetxeak	3	3	%100
Haur edota Lehen eta Bigarren Hezkuntza duten ikastetxeak	17	17	%100
Hezkuntza Bereziko ikastetxe itunduak	1	1	%100
Arte Batxilergoa duten Arte Eskolak	2	2	%100
Hizkuntza Eskola Ofizialak	1	1	%100
Musika kontserbatorioak	1	1	%50
Helduendako ikastetxeak	3	3	%100
<b>OSOTARA</b>	<b>233</b>	<b>200</b>	<b>%86</b>

**Ikastetxeen %92-k gainera, beste liburutegi mota bat ere badu.**

**3. taula**  
BESTE LIBURUTEGI BATZUK

Beste liburutegi batzuk	Haur eta lehen hezkuntza	Bigarren hezkuntza
Ikasgelako liburutegia	%93	%33
Departamentuko liburutegia	%9	%59
Irakasleen liburutegia	%19	%10,5
Beste batzuk	%3,5	%8
Ez dute beste liburutegirik	%7	%33


**Liburutegia beste jarduera batzuetarako erabiltzen da ia ikastetxe guztietan.**

**4. taula**  
IKASTETXEKO LIBURUTEGIAREN BESTELAKO ERABILERAK

Erabilerak	Ehunekoak
Bilera gela	%44
Ikasgela	%34
Ikus-entzunezkoen gela	%26


■ **1.2 Azterlan erkatua. 1999. eta 2006. urteak**

- Liburutegi nagusia duten ikastetxeen kopurua handia da eta gutxika-gutxika gora doa, %85etik %86ra. Ikastetxeek liburutegi nagusiaz gainera bestelakoak ere badituzte (lehen %86 eta orain %92).




- Liburutegi nagusia dago Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan. Liburutegi nagusirik ez duten Lehen Hezkuntzako ikastetxe bakarrak eskola unitarioak dira.
- Ikasgelako liburutegiek garrantzia handia dute Lehen Hezkuntzako ikastetxe-etan (%93) eta departamentukoek Bigarren Hezkuntzakoetan (lehen ikastetxeen %53an eta orain %59an).

**2. grafikoa**  
BESTE LIBURUTEGI BATZUK (%)



- Aipatzekoa da geroz eta liburutegi gehiago dagoela irakasleendako: ia %20 Lehen Hezkuntzan eta %10,5 Bigarren Hezkuntzan.
- Liburutegi nagusia gehiago erabiltzen da beste jarduera batzuk egiteko (lehen %75 eta orain %93). Erabilera ohikoenak dira: bilera gela, ikasgela eta ikus-entzunezkoen gela.

**3. grafikoa**  
LIBURUTEGIAREN BESTELAKO ERABILERA (%)





## LIBURUTEGIAREN ARDURADUNA

### ■ 2.1 Emaitzak. 2006. urtea

**Nafarroan liburutegi nagusia duten ikastetxeen %81ek du koordinatzaile bat. Behin betiko arduraduna duten ikastetxeak gailentzen dira.**

**5. taula**  
LIBURUTEGIAREN ARDURADUNA

Liburutegiaren arduraduna	Ikastetxe kopurua	Ehunekoa
<b>Liburutegian bada arduraduna</b>	<b>192</b>	<b>%81</b>
Behin betiko arduraduna	80	%33,75
Ikasturtez ikasturte aldatzen doana	50	%21,10
Irakasle taldea	24	%10,12
Departamentua	6	%2,53
Hainbat irakasle	32	%13,50
<b>Ez dago liburutegiaren arduradunik</b>	<b>45</b>	<b>%19</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>237</b>	<b>%100</b>

### **la arduradunen erdiak jaso du prestakuntza.**

Arduradunen %47k jaso du prestakuntza berariazkoa eskola liburutegien kudeaketa eta dinamizazioa egiteko. Horietatik %73,3k egin ditu ikastaroak eta informazio saioak eskola liburutegiak kudeatzeko ABIES aplikazio informatikoaren gainean, eta %36,6-k bestelako prestakuntza proposamenetan hartu du parte (eskola liburutegien mintegia, eskola liburutegiak Internet bidez, eskola liburutegiaren erabilpena curriculumeko arlo guztiak ikasteko, etab.).

**Arduradunek 1 edo 5 ordu dituzte astero liburutegiari erantzuteko, berdin lagun baten ardura bada edo talde batena.**

**6. taula**  
ARDURADUNEN ORDUTEGIA

Ordutegia	1-5 Ordu	6-10 Ordu	10 Ordu baino gehiago	Ordutegi osoa
<b>Arduradun 1</b>	79 %	11,80 %	5,45 %	%3,75
<b>Hainbat arduradun</b>	82,14 %	14,30 %	1,78 %	%1,78

**Arduradunen jarduera nagusia katalogazioa da.**

Liburutegiko jarduera ohikoak ikasturte hasierako jarraibideetan aipaturikoak dira, baina batez ere hiru nabarmentzen dira: bilduma lantzea eta antolatzea, hots, materialak katalogatzea, hautatzea eta eskuratzea eta erabiltzaileei arreta ematea, batez ere maileguei dagokienez.


**7. taula**  
LAN NAGUSIAK

Liburutegiaren arduradunaren lanak	%
Katalogazioa	%66,60
Materialak eskuratzea	%48,43
Irakurmena sustatzea	%21,51
Aholkularitza dokumentala 15,62 % Bestelakoak	%14,58
Materialak prestatzea	%9,89

■ **2.2 Azterlan erkatua. 1999. eta 2006. urteak**

- Arduradunen bat duten ikastetxeen kopuruak gora egin du (%79tik %82,5era)
- Aukerarik ohikoena da liburutegiak arduradun bakarra eta behin betikoa izatea (%34tik %33ra). Horren ondotik, ikasturtero arduraduna aldatzen dutenak daude (%24tik %21era). Gora egin du liburutegiko lantaldea duten ikastetxeen ehunekoak (%8tik %11ra) eta gora egin du baita lantalde horietako irakasle kopuruak (%12).
- 1999ko azterlanarekin erkatuz arduradunen prestakuntza hazkunde handiena izan duena da. Hori bat dator Hezkuntza Departamentuaren prestakuntza planak azken sei ikasturteetan egin izan dituen ekinbideekin.

- 1999ko azterlanean, arduradunaren lanik behinena mailegutza zen. Gaur egun berriz, antolamendua da; jardue-  
ra horrek prestakuntza handiagoa eskatzen du.



## LIBURUTEGIAREN ANTOLAMENDUA

### ■ 3.1 Emaitzak. 2006. urtea

#### A. ORDUTEGIA


**Ikastetxe gehienek irekia izaten dute liburutegia eskola orduetan.**

### 8. taula LIBURUTEGIAREN ORDUTEGIA

ORDUTEGIA	EHUNEKOA
Eskola ordu guztietan	%46,85
Eskola orduen zati batean	%18,75
Eskola orduak eta gero soilik	%16,60
Jolastorduetan	%10,00
Ez da irekitzen	%7,80
OSOTARA	%100,00

### 5. grafikoa

#### BERARIAZKO PRESTAKUNTZA



## B. FUNTSA

**1000 eta 3000 ale arteko funtsa duten ikastetxeak gehiengo dira.**

**9. taula**  
ALE KOPURUA

Aleak	Ikastetxe kopurua	Ehunekoa
1.000 baino gutxiago	41	%21
1.000 eta 3.000 bitarte	67	%35
3.000 eta 5.000 bitarte	34	%18
5.000 eta 10.000 bitarte	21	%11
10.000 baino gehiago	4	%2
Zehaztu gabe	25	%13

**Liburutegien erdiek baino gehiagok berritzen dituzte funtsak aldi-an-aldian.**

**10. taula**  
FUNTSAK BERRITZEA ALDIAN-ALDIAN

Bai	Ez
%58	%35

**Liburutegi nagusia duten ikastetxe gehienek funtsak katalogaturik edo katalogatze informatiko bidean dituzte.**

**Erdiek baino gehiagok erabiltzen dute Sailkapen Hamartar Unibertsala (SHU).**

**11. taula**  
KATALOGATZE PROZESUA

Liburutegi katalogatuak edo katalogatze bidean daudenak	%72
Katalogatu gabeak	%28
SHU erabiltzen dute	%54

**Literatura lanak nagusi dira.**

**12. taula**  
FUNTSAREN KONPOSIZIOA

Fikziozko Literatura	Kontsulta	Ezagutza
%60	%20	%20

**Ikus-entzunezko baliabideek gora egiten dute. Ikastetxeen %25ean liburutegian zentralizatu dira.**

**13. taula**  
BESTE BALIABIDE BATZUK

Beste baliabide batzuk	Zenbat ikastetxek dituzten
Ikus-entzunezkoak	%58
Aldian aldiko argitalpenak	%51
Dokumentu elektronikoak	%26
Material grisak	%22

### C. ERREGISTROA

**Liburutegien %63k erabiltzen du erregistro liburua.**

### D. KATALOGOA

**Liburutegien %65ek baino gehiagok du katalogoren bat.**

%50ak du katalogo informatizatua.

Eskuko katalogoak dituzten liburutegien artean %13k izenburuaren arabera antolatua du, %11k autorearen arabera eta %5,20k gaiaren arabera.

**14. taula**  
KATALOGOAK

Katalogoak	Ehunekoak
Informatizatua	%50
Izenburuka	%13
Autoreka	%11
Gaika	%5
Ez dute katalogorik	%33



## E. NORMALIZAZIOA

Apalategietako funtsak banatzeko irizpiderik ohikoena Sailkapen Hamartar Unibertsala izaten da. Oraindik ere normalizatu gabe daude inkestaturiko ikas-tetxeen %14.

**15. taula**  
FUNTSAREN BANAKETA

Banaketa irizpidea	Ehunekoa
SHUren arabera	%44
Gaika	%20
Bestelakoak (zikloak, bildumak)	%22
Antolatu gabe	%14

## F. HEDAPENA

**Apenas dagoen ikastetxerik liburutegiko aldizkari informatiboa argitaratzen duenik (%7,8).**

## G. MAILEGUA

**Maileguak aste guztian zehar funtzionatzen du, ikastetxeen %70a baino gehiagotan.**

## H. AURREKONTUA

**Ikastetxeen erdiek baino gehiagok dute liburutegirako aurrekontua.**


**16. taula**  
AURREKONTUA

Aurrekontua	Ehunekoa
300 euro baino gutxiago	%3
300 - 600 euro	%25,5
600 - 1.200 euro	%24
1.200 - 2.400 euro	%9
2.400 - 6.000 euro	%2
6.000 euro baino gehiago	%0,5
Ez du aurrekonturik	%47

### ■ 3.2 Azterlan erkatua. 1999 eta 2006 urteak


- Nabarmen handitu da liburutegia irakastordu guztietan irekia duten ikasle-teen kopurua, eta behera egin du liburutegia inoiz irekitzen ez dutenena.

**6. grafikoa**  
LIBURUTEGIAREN ANTOLAMENDUA (%)




- Ehuneko bera mantentzen da 3.000 eta 5.000 aleen arteko funtsa duten ikasle-teen. Gora egin du 1.000 eta 3.000 artean eta 5.000 eta 10.000 artean dituztenen kasuan. Behera egin du 10.000 ale baino gehiago dituzten ikasle-teen.

**7. grafikoa**  
ALE KOPURUA (%)




- Inkestaturiko ikastetxeen %13k baino ez dituzte funtsak zenbaturik.
- %70ek baino gehiagok dituzte liburutegiak katalogaturik edo katalogatze bidean. Balio hori 1999an erregistraturikoaren antzekoa da, baina nabarmen egi- ten du gora nazioarteko katalogatze arauak onetsi dituzten ikastetxeen kopuruak: %54 baino gehiago dira, eta lehen %32 ziren.

**8. grafikoa**  
FUNTSAK (%)




- Lanen edukiari dagokionez, nabarmentzekoa da funts literarioen nagusitasu- na, informazio eta jakintza lanen aurretik. 1999an baino gehiago dira lan lite- rarioak, orduan %45 baitziren, eta gaur egun, ia %60. Kontsulta eta jakintza lanen ehunekoa berdintsua da (%20).

**9. grafikoa**  
FUNTSAREN KONPOSIZIOA (%)





- Liburutegiko funts dokumentalaren (bibliografikoak ez diren) baliabide propioen artean, gora egin du ikus-entzunezko materialak (orain %58 eta lehen %46), eta behera egin dute aldizkako argitalpen didaktikoeak (orain %51 eta lehen %70). Baliabide elektronikoaren integrazio handiagoa ere ikusten da (%17tik %26ra pasatzen gara) eta neurri txikiagoan, baina gora hala ere, ekoizpen propioak (1999an %19,5 ziren eta gaur egun %22).
- Erregistro liburuak eskura dago ikastetxeen %63an. Lehen %52an zegoen. ABIES aplikazioa erabiltzen da; automatikoki sortzen du.

**10. grafikoa**  
BALIABIDEAK (%)



- %58ak funtsak erregulartasunez eguneratzen ditu. %51k aurrekontu bat du bideratua liburutegirako. Diru kopururik ohikoena 300 eta 600 euro bitartekoa da (lehen %24,5, orain %48).
- 1999an liburutegien %0,5ek egiten zuten informazio buletina. Orain %7,8k egiten du.
- Ikastetxeen %74k mailegutzen du, gutxienez, 3 edo 4 egunetarako.


### 11. grafikoa ERABILPENA (%)





## 12. grafikoa

### INFORMATIZAZIOA (%)





## LIBURUTEGIA ETA IKASTETXEA

### ■ 5.1 2006. urteko emaitza

.....

**Inkestaturiko ikastetxeen laurdenak baino gehixeagok dute urteko programazioa liburutegirako. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe gehienek dituzte irakurketa planak.**


### ■ 5.2 1999. eta 2006. urteen arteko azterlan erkatua

.....


- Liburutegiko urteko programazioa duten ikastetxe kopuruak gora egin du, %21etik %48ra. Programazio hori ikastetxeko programazio orokorrean sartuta dago.
- Irakurketa planetan eskola liburutegiaren erabilera sartzen duten ikastetxeak, %0 izatetik %50 izatera pasatu dira (hori Hezkuntza Departamentuak sustaturiko hobekuntza planei zor zaio).

### 13. grafikoa

URTEKO PROGRAMAZIOA ETA IRAKURKETA PLANAK (%)







## ESKOLA LIBURUTEGIAK BESTE LIBURUTEGI BATZUEKIN DUEN HARREMANA

### ■ 6.1 2006. urteko emaitzak

---

**Harreman handia ILZtako liburutegiekin eta harreman txikia liburutegi publikoekin (%46).**

**18. taula**  
KANPO HARREMANAK

ILZtako liburutegiak	%58
Liburutegi publikoak	%26
Biekin eta beste batzuekin	%16

### ■ 6.2 Azterlan erkatua. 1999. eta 2006. urteak

---

- Oro har, ikusten da kanpo harremanek gora egin dutela: lehen ikastetxeen %17k zituzten kanpo harremanak eta orain %46k.
- Harremanik behinenak Irakasleak Laguntzeko Zentroetako liburutegiekin dituzte (liburutegien arteko mailegu politika).

The background is a dark gray gradient. It features several bright white lines that intersect and curve across the frame. There are also several bright white circular spots of varying sizes, some of which appear to be at the intersections of the lines, creating a sense of depth and light trails.

ONDORIOAK

## ■ 1. 1999. eta 2006. urteen arteko emaitza erkatuak

.....

- Gaur egun, eskola liburutegiak ikastetxe gehienetan daude eta oinarrizko espazioa, altzariak eta ekipamendua dute. Esaten ahal da ikastetxeen ehuneko handi bat hornikuntza eguneratzen eta handitzen ari dela.
- Ikastetxeko baliabide didaktiko guztien kudeaketa zentralizatzen hasi dira, baina oraindik gutxi dira kudeaketa erabat zentralizatua dutenak, oraindik ere uste baitute ikasgeletako funtsak, Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta departamentuetakoak, Bigarren Hezkuntzan, batzuen eta besteen eskumenekoak direla.
- Geroz eta ohikoagoa da ikastetxeetan liburutegiaren arduraduna izatea, nahiz eta eginkizun horretarako dauden orduak ez diren aski.
- Azken datuekin, ikusten da hobekien funtzionatzen duten liburutegiak liburutegietako prestakuntza duten irakasle taldeek kudeaturikoak direla. Talde horiek lan egiten dute urtero ebaluatzen den liburutegi egitasmo batekin.
- Ikusten da irakasle multzo handi batek eskola liburutegiaren baliabideak antolatzen eta hedatzen berariazko prestakuntza dutela.
- Liburutegiak geroz eta hobekiago antolatuta eta seinaleztatuta daude, katalogatzeko nazioarteko arauen arabera, Blitz materialen hedapenari esker (posterrak, foiletoak, web orriak, etab.). Gainera, ABIES programak erraztu egiten du lan hori eta eskura jartzen ditu katalogoak, erregistro liburuak, ale zerrendak, etab.
- Liburutegira baliabide berriak gehitu badira ere, ikusten da oraindik ere multimedia baliabide gutxi dagoela. Gainera, desoreka dago funtsaren konposizioan, fikziozko literaturak nabarmen gairatzen baititu curriculum alor desberdinetako jakintza lanak.
- Liburutegietara bideraturiko aurrekontua handitu da, baina oraindik ere ez da aski.
- Ikusten da zuzendaritza taldearen lidergoak duen garrantzia eskola liburutegiaren funtzionamendu eta erabilera egokian.
- Liburutegiko zerbitzua hedatzeko egin den esfortzua handia bada ere, apenas ez da informaziorik ematen nobedadeen, jardueren, ordutegiaren eta abarren gainean.
- Geroz eta gehiago erabiltzen dira inguruko liburutegietako baliabideak, batez ere ILZtakoak, liburutegien arteko maileguari esker.
- Administrazioak irakurketa planak egiteko eskatzen du. Horrek eskola liburutegiak ikastetxeko dinamikan sartzeari erraztu du, batez ere Haur eta Lehen Hezkuntzan. Berrikuntza planak ezartzeak ere aurrerapen handia suposatzen du. Horietan, helburuak dira curriculumeko arlo guztietako hizkuntza gaitasunak hobetzea eta atseginez irakurtzea.

## ■ 2. Hobekuntza proposamenak

---

Ondoko hobekuntza arloak ezarri dira:

### ■ **Liburutegi nagusia**

*Baliabide didaktikoen kudeaketa hobetzea, ikastetxeko funts guztiak eskola liburutegian zentralizatuz.*

---

- Modu honetan bermatuko da funtsak hobeki antolatzea, ahalik eta irakasle eta ikasle gehienek ezagutu eta erabil ditzaten. Neurri honek ez du esan nahi beste liburutegi batzuk desagertuko direnik, kasu, ikasgelako edo departamentuko liburutegiak. Aitzitik, liburutegi nagusiak denboraldi baterako mailegaturiko baliabideak dituzten espazioak bihurtuko dira liburutegi horiek.

### ■ **Arduraduna**

*Eskola liburutegiaren arduradunaren ordu dedikazioa hobetzea, ikastetxearen ezaugarrien eta ikasle kopuruaren arabera.  
Liburutegiko diziplinarteko taldea antolatzea, gutxienez, astean eskola ordu bateko dedikazioarekin.*

---

- Liburutegi batek funtziona dezan funtsezkoa da arduradun bat eta liburutegiko lantalde bat izatea.
- Arduradunak eskola ordu aski izan behar ditu maileguak, katalogazioa, hedapena eta irakurtzera animatzeko lanak egiteko. Gainera, talde lana koordinatu behar du eta liburutegiko proiektua sustatu behar du.

### ■ **Prestakuntza**

*Liburutegiko lantaldeen prestakuntza hobetzea.*

---

- Ikastetxeetako zuzendaritzek liburutegiko lantaldeen prestakuntza erraztu behar dute. Lantalde horiek sustatu ere egin behar dituzte, irakasleek parte hartu dezaten liburutegiaren antolakuntzan eta dinamizazioan.
- Prestakuntza mota honen ezaugarria da autonomia maila gorenekoa dela. Prestakuntza mota honek bestelako jarduerak ere izan beharko lituzke, arduradunen eta erabiltzaileen behar bezalako prestakuntza bermatzeko (antolatze eta dinamizatze ikastaroak, aholkularitza iraunkorra ikastetxeetan, etab.).

### ■ **Funtsa**

*Dokumentu funtsaren osaera hobetzea.*

---

- Nahitaezkoa da kontsulta eta informazio material aski izatea, liburutegia izan dadin irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren euskarri.
  - Gaur egun, liburutegiekin berri eta modernizatu behar dituzte beraien bildumak, eta Interneteko baliabideak eskura izan behar dituzte.
-

- Departamentu didaktikoeak material askotarikoak, gaur egunekoak, eta euskarri desberdinetakoak erosteko eskatu behar diote liburutegi nagusiarri. Baliabideen hautaketa arrunt lan garrantzitsua eta zaila da, eta argialetxeen katalogoetatik haratago joan beharko litzateke. Hautaturiko funtsen egokitasuna aurreikusteko ez dago irakasleak baino hoberik, aintzat hartuz gero ikastetxean garaturiko egitasmoak, gaietako curriculum edukiak eta ikasgeletan eta liburutegian dauden baliabideak (ordenagailuak, irakurgailuak, telebista, proiektoreak...). Irakasleentzako Laguntza Zentroek eta eskola liburutegiei aholkularitza emateko Hezkuntza Departamentuak duen zerbitzuak langintza horretarako informazioa eta prestakuntza ematen dute.

#### ■ **Hedapena**

*Eskola liburutegiak hezkuntza-komunitateari ematen dion informazioa hobetzea.*

- Liburutegiko taldeak ezagutzera eman behar ditu liburutegi zerbitzuak, erabiltzaile gidetaz. Gida horiek jakinarazi beharko dute zein diren ikastetxeko liburutegiaren helburuak, ordutegia, sarrera baldintzak, funtsa (material mota, antolamendua eta sailkapena), zerbitzuak (mailegua, irakurketa gela, jarduerak...), arauak, plana, etab.
- Eskola liburutegietarako Hezkuntza Departamentuak duen webguneak gida horiek diseinatzeko erraztasunak ematen ditu.

#### ■ **Aurrekontua**

*Eskola liburutegiaren diru hornidura hobetzea.*

- Ikastetxeko zuzendaritzak liburutegi nagusiko funtsak berriro ahal izatea bermatzeko aski izanen den diru kopurua esleitu beharko du.

#### ■ **Informatizazioa**

*Liburutegi nagusietako ekipo informatikoak hobetzea.*

- Liburutegiak CD-ROM eta DVD irakurgailua eta Internetera konexioa duten ordenagailuak izan behar ditu. Ikastetxe guztietako beharrak bete ondoren, ekipo gehiagoren baliabideak hobetu beharko lirateke (gutxienez birenak: bata kudeaketarako eta bestea erabiltzaileendako), dokumentazio elektronikoa kontsultatu ahal izateko, lanak egin ahal izateko, aisiarako, etab.

#### ■ **Liburutegiaren egitasmoa**

*Ikastetxeek liburutegi egitasmoak egin ditzatela sustatzea.*

- Funtsezkoa da ikastetxe bakoitzak bere liburutegi egitasmoa egin dezala, bertan planifikatzeko lana, horrela, hobekuntza planaren, irakurketa planaren, programazio didaktikoen eta abarren ondorioz izan daitezkeen beharrei erantzun ahal izateko

## ■ **Zuzendaritza taldearen papera**

*Zuzendaritza taldeak liburutegiaren funtzionamenduan duen inplikazioa areagotzea.*

---

- Funtsezkoa da ikastetxeetako zuzendaritzak inplikatzeko, liburutegiak behar bezala funtziona dezan. Zuzendaritza taldeari dagokio funtzionamendua bermatzea, urteko aurrekontua esleitzuz, baliabideak hainbat euskarritan hautatuz eta eskuratuz, arlo guztien beharrak erantzuteko, liburutegiaren antolamendurako eta dinamizaziorako arduradun bat eta lantalde bat izendatuz eta liburutegiaren egitasmoa ikastetxearen planetan sartuz.

## ■ **Eskola liburutegien sarea**

*Eskola liburutegien sarea sortzea, horrela, liburutegi nagusien ezarpena hobetzeko.*

---

- Eskola liburutegiek sare bat osatu behar dute, egiten dituzten jarduerak eta dituzten baliabideak ezagutu daitezkeen. ABIES programaren erabilerak erraztu dezake funtsetara iristea eta liburutegien arteko maileguak egitea. Webgunearen bidez, ikastetxeek gainontzekoen esku jar ditzakete beraien esperientziak eta irakurketari loturiko jarduerak, denek erabili ahal izan ditzaten.
- PNTE zerbitzarian dago eskola liburutegien webgune berria. Webgune horrek ikastetxeei beraien esperientziak erakusteko aukera emanen die.
- Nahitaezkoa da noizean behin esperientziak elkartrukatzeko jardunaldi presentzialak egitea, beste ikastetxeendako eredu izan daitezkeen esperientziak ezagutarazteko, helburu komunak planteatzeko eta elkarlanerako harremanak ezartzeko.

## ■ **Harremanak beste liburutegiekin**

*Beste liburutegiekin harremanak hobetzea eta inguruko baliabideak optimizatzea.*

---

- Garrantzitsua da harremanak izatea beste liburutegiekin, kasu, liburutegi publikoekin eta Irakasleentzako Laguntza Zentroetakoekin. Ildo horretan, ILZtako liburutegiak funtsak berritzen hasi dira, eta funts horiek ikastetxeen esku utzi dituzte. 2005etik hona, fikziozko literatura funtsa berritu da eta gaur egun multimedia materialak berritu nahi dira.
- Elkarlana abian paratu behar da, Nafarroako liburutegi sistema arautzen duen 32/2002 Foru Legeak ezartzen duen moduan. Liburutegi publikoak nobedadeen berri eman behar die irakasleei, ikastetxeei baliabide askotarikoak eskaini behar dizkie eta familiekin irakurtzeko jarduerak garatzeko gune bihurtu behar dira.
- Eskola unitarioetako irakasleek udal liburutegiekin eta ILZtakoekin duten harremana areagotu beharko litzateke, funtsen mailegutza errazago egiteko.



## ■ **Legeria**

### *Eskola liburutegien funtzionamendua Nafarroan bilduko duen legeria egitea.*

---

- Gaur gaurkoz, autonomia erkidegoek ez dute eskola liburutegien funtzionamendua arautuko duen legeriarik. Plan instituzionalen ardura dutenen helburu komuna beharko luke izan, etorkizunera begira, eskola liburutegian estatu mailako sarea osatzeko oinarri gisa.
- Nafarroan oinarrizko dokumentazioa egin da, etorkizunean eskola liburutegien estatu sarea osatzeko. Dokumentazio hori eskura dago ondoko webgunean: <http://www.pnte.cfnavarra.es/profesorado/recursos/biblioteca/>.

### **Nafarroako liburutegien plana aipatzen den bibliografia**

- CAMACHO ESPINOSA, José Antonio, *La biblioteca escolar en España: pasado, presente... y un modelo para el futuro*, Madril, Ediciones de la Torre, 2004.
- NAFARROAKO GOBERNUA, *Una aproximación al estudio de las bibliotecas escolares en Navarra. Claves para su mejora*, Iruña, Hezkuntza eta Kultura Departamentua, 1999.
- NAFARROAKO GOBERNUA, *Estadística Educativa de Navarra. Enseñanzas no universitarias. Curso 2005-2006*, Iruña, Hezkuntza Departamentua, 2006.
- NAFARROAKO GOBERNUA, *Planes de mejora del Departamento de Educación* [on line]. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua. 2006. Iruña: Nafarroako Gobernu, 2006. <http://www.pnte.cfnavarra.es/planesdemejora/> [Kontsulta: 2007ko martxoaren 28a]
- MARCOTEGUI ROS, Javier, *Repertorio de legislación educativa aplicable en la Comunidad Foral de Navarra*, Iruña. Nafarroako Gobernu. Hezkuntza Departamentua, 2006.
- Askoren artean, *Las bibliotecas escolares en España: análisis y recomendaciones*, Madril, Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 2005.

### **Autonomi erkidegoetan eskola liburutegiak eta irakurketa sustatzeko dauden planen gaineko bibliografia.**

- COMUNIDAD DE MADRID. *Bibliotecas Escolares de la Comunidad de Madrid* [on line]. <http://www.educa.madrid.org/binary/24/BBEE.pdf> [2007ko uztailaren 31n azkenez kontsultatua]
- GENERALITAT DE CATALUNYA, *Biblioteca escolar: PUNTEDU* [on line], Departament d'Educació. <http://www.xtec.es/innovacio/biblioteques/> [2007ko uztailaren 31n azkenez kontsultatua]
- GOBIERNO DE ARAGÓN, *Programa de Fomento Lectura y Escritura* [on line], Departamento de Educación, Cultura y Deporte. <http://www.educaragon.org/arboles/programas.asp> [2007ko uztailaren 31n azkenez kontsultatua]
- GOBIERNO DE CANARIAS, *Programa de Lectura y Biblioteca* [on line]. Consejería de Educación, Cultura y Deportes.



<http://www.gobiernodecanarias.org/educacion/unidadprogramas/palb/>  
[2007ko uztailaren 31n azkenez kontsultatua]

- GOBIERNO DE CANTABRIA, *Plan lector* [on line]. Consejería de Educación. <http://www.educantabria.es/portal> [2007ko uztailaren 31n azkenez kontsultatua]. (Irakurtze planera iristeko Planes eta Programas loturak klikatu behar dira).
- GOBIERNO DEL PRINCIPADO DE ASTURIAS, *La biblioteca escolar como recurso educativo*, Consejería de Educación y Cultura, colección materiales de apoyo a la acción educativa, Oviedo, 2002.
- JUNTA DE ANDALUCIA, *Plan LyB. Guía de Bibliotecas Escolares. Plan de Lectura y de Bibliotecas Escolares en los centros educativos de Andalucía*, Consejería de Educación. Sevilla, 2006.
- JUNTA DE CASTILLA Y LEÓN, *¡gaur liburua! Plan de fomento de la lectura en centros educativos, de Castilla y León*, Consejería de Educación, Valladolid, 2006.
- JUNTA DE COMUNIDADES DE CASTILLA-LA MANCHA, *Plan de lectura de los centros escolares 2005-2010*, Consejería de Educación y Ciencia [on line]. <http://www.educa.jccm.es/educa-jccm/cm> [2007ko uztailaren 31n azkenez kontsultatua]  
(Hasierako orrialdean ageri den Recursos Educativos loturan klik egin).
- JUNTA DE EXTREMADURA, *Plan de apoyo y fomento de las bibliotecas escolares de Extremadura*, Consejería de Educación, Badajoz, 2006.
- MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y CIENCIA, *Actuaciones para la mejora de las bibliotecas escolares* [on line] <http://www.mec.es/educa> [2007ko uztailaren 31n azkenez kontsultatua]  
(Hasierako orrialdean, honako loturan klik egin: Programas de cooperación con las Comunidades Autónomas).
- REGIÓN DE MURCIA, *Programa experimental bibliotecas escolares* [on line], Consejería de Educación y Cultura. <http://www.educarm.es/> [2007ko uztailaren 31n azkenez kontsultatua]  
(Liburutegí programa espermentalera iristeko, Programas Educativos loturan klik egin. Zuzeneko lotura ere badago DBHn irakurketa sustatzeko web tematikoaren hasierako orrialdtik).
- XUNTA DE GALICIA, *Bibliotecas Escolares de Galicia*, Consellería de Educación e Ordenación Universitaria [on line] <http://www.edu.xunta.es/biblioteca/blog/>  
[2007ko uztailaren 31n azkenez kontsultatua]  
(Orrialde honetako eskuineko eta goiko angeluan, zuzeneko lotura dago Hezkuntza sailko eskola liburutegientzako aholku webgune ofizialera iristeko).

## ESKOLA LIBURUTEGIEN GAINKO ARAUDIA

- **1537/2003 errege dekretua, abenduaren 5ekoa, erregimen orokorreko eskola irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek izan behar dituzten baldintza gutxienekoak ezartzen dituena (BOE 295, 10-12-2003).**

<http://www.boe.es/boe/dias/2003/12/10/pdfs/A43808-43813.pdf>

Liburutegi bat nahitaez egon beharra ezartzen du, "ikastetxeko curriculum helburuak iristen lagungarri izateko. Behar adinako liburu funtsa eta ekipamendi informatikoa izanen du harenb kudeaketa zauliutu eta ikasleengan irakurzletasua sustatzeko".

Liburutegiak behar duen azalera minimnoa hezkuntza mailaren arabera da.

- **88/2006 Foru Agindua, uztailaren 18koa, Hezkuntza kontseilariarena, abenduaren 5eko 1537/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria garatzen duena. Errege dekretu horretan ezartzen dira unibertsitatez besteko eta araubide orokorreko ikasketak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko baldintzak.**

<http://www.cfnavarra.es/bone/068/f0612700.htm>

Ezartzen du zer baldintza behar diren Haur eta lehen Hezkuntzako Bigarren zikloko ikastetxeetan ezaugarri soziodemografiko edo eskolar bereziko populazioei arreta egiten dietenean.

- **32/2002 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako Liburutegiaren sistema arautzen duena (142 NAO, 2002-11-25).**

<http://www.cfnavarra.es/bone/02b/02b25003.htm>

Eskola liburutegiak 19. artikuluko 2. puntuan aipatzen dira, zeinean eskolako liburutegia honela definitzen baita: "baliabide zentro oinarritzkoa, Hezkuntza eta Curriculum proiektuetan erabat integratua, eta informazio zerbitzu eragilea, ikasleentz ikasketarako, irakaslanerako eta gizarte ingururako ezinbestekoa". Ezartzen ere du ze "ikastetxe guztietan eskola liburutegi bat egonen dela, irakaslaneko osagai gisa, behar adinako dokumentu, eremu eta jende baliabideez hornitua, Foru legeak ematen dizkion eginkizunak egiteko".

- **583/2002 ebazpena, uztailaren 15ekoa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, Lehen Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak ematen dituena eta 527/2002ebazpena, ekainaren 27koa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak ematen dituena.**

<http://www.cfnavarra.es/bone/029/02911008.htm>

<http://www.cfnavarra.es/bone/029/02911007.htm>

Ebazpen hauetan hainbat orientabide edo iradokizun sartu dira, batzuetan gogo-etak ere bai, irakurriaren ulermena bultzatzeko. Bultza egin nahi zaie batzuei segi dezaten ikasgelan irakurketa saioak egiten eta beste batzuei sinistarazi nahi zaie irakurriaren ulermena guztion lana eta erantzunbeharra dela, zein ere irakasgai ematen duten.

#### ■ **Hobekuntza planak Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHrako.**

<http://www.pnte.cfnavarra.es/planesdemejora/euskera/euskera>

2003-2004 ikasturtearen bukaeran ebaluazioa egin zaielarik Gaztelania, Euskara, Matematika eta Ingurunearen Ezgautza irakasgaietan Lehen Hezkuntzako 2. eta 4. kurtsoetako ikasleei, Hezkuntza Departamentuak, emaitzak ikusirik, hobekuntza plan batzuk abiatu ditu Haur eta Lehen Hezkuntzako haurren gaitasun oinarrikoetan duten maila goratzeko, eta DBHra etapako helburuak gaindituta pasatzen diren ikasleen kopurua handitzeko.

#### ■ **Ikastetxe publikoen antolamendu eta jaurdunbiderako jarraibideak**

Ikasturte bakoitzaren hasieran argitaratzen dira. Koordinazio organo gehigarri buruzko atalean aipatzen da liburutegiko koordinatzaile bat izendatzeko aukera badela, zeinak gehienez astean bi eskola ordu hartuko baititu kargu horretatik heldu diren lanak egiteko. Koordinatzaile hori bere ikastetxeko idazkariaren mende egonen da.

#### ■ **Eskola liburutegiak LOEko curriculumetan**

<http://www.pnte.cfnavarra.es/jornadaseducativas/escuela/loelege.html>

### Haur hezkuntza

**Edukiak 1 blokea.** Hitzeko hizkuntza, 1.2. atala. *Hizkuntza idatziaren atarian:*

- Norbere izena eta beste lagunena idaztea hainbat helbururekin: *bere lanak eta gauzak identifikatzea, lanen batean parte hartua jasotzea, **liburutegian** liburuak mailegatzeko, eta abar.*
- **Liburutegia** errespetuz eta arretaz erabiltzea, **liburutegia** gozamenerako eta dibertsiorako informazio baliabidea dela ulertzea..

### Lehen Hezkuntza

**I eranskina.** Oinarriko gaitasunak:

- *Oinarriko gaitasunak garatzeko curriculumeko arlo eta ikasgaietan egiten lanaren osagarri, zenbait antolamendu eta jardunbide neurri hartu behar dira,*

garapen horretarako ezinbestekoak. Ikastetxe eta ikasgelen antolamendu eta jardunbidea, adibidez, ikasleen partehartzea, barne erregimeneko arauak, zenbait metodologia eta baliabide didaktiko erabiltzea, edo **eskolako liburutegia** asmatu, antolatu eta jardunaraztea ...

## II. eranskina

Eskolako liburutegia, curriculumeko arlo guztien helburuen artean ageri da, honela:

- **Eskolako liburutegia**, informazio eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa eskuratzeko eta ezagutzak beretu eta partekatzeko tresna gisa.

**Edukiak 8. blokea.** Nafarroako Foru Komunitatea:

- **Eskolako liburutegian** informazioa bilatu Nafarroako eskualde geografikoei bereizgarri dituzten animalia-landareen gainean (lehen zikloa).
- **Eskolako liburutegian** informazioa bilatu (entziklopediak, monografiak, DVDak, webguneak eta abar,) Nafarroako folklore eta herri tradizioen gainean (bigarren zikloa).
- **Eskolako liburutegian** informazioa bilatu (monografiak, entziklopediak, DVDak, webguneak, eta abar) Donejakue bideko nafar zatiaren monumentu nagusien gainean (hirugarren zikloa).

**Ebaluazio irizpideak. Lehen zikloa:**

*11. Hizkuntza mintzatua eta idatzia erabiltzea bere bizipenak kontatu, pentsamenduak adierazi eta gizarteko nahiz naturako errealitatearen alderdi desberdinak ikertzeko. Arloaren gaineko testuak irakurri.*

Irizpide honek ebaluatu nahi du zenbateko hizkuntza gaitasuna beretu duten ikasleek arloko testuetako Ahozko eta idatzizko adierazpenari dagokionez, eta zenbateraino erabiltzen duten ikasitako lexiko berariazkoa. Kontuan hartuko da **eskola liburutegiko** funtsak maneiatzen lortutako trebetasuna.

**Ebaluazio irizpideak. Bigarren zikloa:**

*11. aurretik mugatutako gertaera edo fenomenoaren gaineko informazio ardurakoa lortzea, gizarteko nahiz naturako gertaeren gaineko aurreikuspenak egin, zuzeneko nahiz zeharbidezko obserbazioan lortutako datuak bilduz oinarrizko iturriak kontsultatuzetik abiatuta, eta emaitzak aditzera ematea.*

- Irizpide honek ebaluatu nahi du zenbateko gaitasuna lortu duten hipotesiak egiteko, bai modu naturalean izaten diren gertaeren gainean ... Kontuan hartuko da **eskola liburutegiko** funtsak maneiatzen lortutako trebetasuna.

*12. Ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzea gizarteko nahiz naturako alderdia adierazteko. Arloaren gaineko testuak irakurtzea.*

- Irizpide honek ebaluatu nahi du zenbateko hizkuntza gaitasuna beretu duten

ikasleek arloko testuetako Ahozko eta idatzizko adierazpenari dagokionez, eta zenbateraino erabiltzen duten ikasitako lexiko berariazkoa. Kontuan hartuko da **eskola liburutegiko** funtsak maneiatzen lortutako trebetasuna.

### **Ebaluazio irizpideak. Hirugarren zikloa:**

10. Txosten bat aurkeztea, euskarri informatikoan eta paperezkoan, problema edo egoera sinpleen gainean, hainbat iturritako informazioak bilduz (zuzenekoak, liburuak, Internet), lan plan bati segituz eta ondorioak adieraziz. Nafarroako ondare kultural eta artistikoaren gaineko ikerketak egitea, **eskola liburutegiko** materiala oinarri hartuta.

- Irizpide honek ebaluatu nahi du zenbateko gaitasuna beretu duten ikasleek informazio zehatza eta ardurakoa bilatu, hautatu eta antolatzeko, emaitzak aztertzeko, ondorioak atera, esperientzia adierazi, egindako prozesuaren gainean gogoeta egin eta ahoz nahiz idatziz aditzera emateko. Ebaluatuko ere da idatzizko dokumentuak kontsultatu eta erabili diren, irudiak, grafikoak eta taula estatistikoak atera diren. Kontuan hartuko da **eskola liburutegiko** funtsak maneiatzen lortutako trebetasuna. Garrantzi berezia emanen zaio euskarri digitalean eta paperean modu ordenatu, argi eta garbian aurkezteari.

11. Ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzea gizarteko nahiz naturako alderdiak adierazteko. Arloko testuak irakurtzea.

- Irizpide honek ebaluatu nahi du zenbateko hizkuntza gaitasuna beretu duten ikasleek arloko testuetako Ahozko eta idatzizko adierazpenari dagokionez, eta zenbateraino erabiltzen duten ikasitako lexiko berariazkoa. Kontuan hartuko da **eskola liburutegiko** funtsak maneiatzen lortutako trebetasuna.

## **II. eranskina, jarraipena**

Eskolako liburutegia etengabe ageri dira Gaztelania eta literatura, Euskara eta literatura, atzerriko hizkuntza (ingelesa), atzerriko bigarren hizkuntza (frantsesa eta alemana) arloetako eduki bloke guztietan: Hizkuntzen tratamendu integratua

### **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**

#### **I eranskina. Oinarrizko gaitasunak:**

Oinarrizko gaitasunak lortzeko, curriculumeko arloetan eta irakasgaietan egindako lanari garapenerako beharrezkoak diren antolamenduaren eta funtzionaltasunaren esparruetako neurri batzuk erantsi behar zaizkio. Beraz, ikastetxeen eta ikasgelen antolaketa eta funtzionamendua, ikasleen parte-hartzea, barne arauak, metodologia eta baliabide didaktiko batzuen erabilera edo eskolako liburutegiaren eraketa, antolaketa eta funtzionamendua eta beste elementu batzuk lagungarri edo oztopo izan daitezke komunikazioari, inguru fisikoaren azterketa-ri, sormenari, elkarbizitzari eta herritartasunari nahiz alfabetatze digitalari lotu-

tako gaitasunak garatzeko. Orobat, tutore-jardun etengabea funtsezko laguntza izan daiteke ikasketen erregulazioari, garapen emozionalari edo trebetasun sozialei dagozkien gaitasunak garatzeko. Azkenik, jarduera osagarriak eta eskola kanpokoak planifikatuz gero, oinarritzko gaitasun guztien garapena bultzatzen ahal da.

## II eranskina:

---

Eskolako liburutegia, curriculumeko arlo guztien helburuen artean ageri da, honela:

**Eskolako liburutegia** nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea gai zientifikoei buruzko lanak arrazoitu eta orientatzeko eta ezagutzak ikasi eta partekatzeko tresna gisa; natur ingurunearen gaineko informazioa hautatzea; fenomeno naturalen gaineko informazioa erdiestea, eta abar.

## II. eranskina, jarraipena

---

Eskolako liburutegia etengabe ageri dira Gaztelania eta literatura, Euskara eta literatura, atzerriko hizkuntza (ingelesa), atzerriko bigarren hizkuntza (frantsesa eta alemana) arloetako eduki bloke guztietan: Hizkuntzen tratamendu integratua

## INKESTA EREDUA

IKASTETXEAREN IZENA \_\_\_\_\_

HERRIA \_\_\_\_\_

(Markatu gurutze batez edo gehiagoz galdera bakoitzaren erantzunak)

### 1. Ikastetxe mota

- Ikastetxe publikoa
- Ikastetxe itundua

### 2. Ikastetxe berean ematen diren irakaskuntzak

- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza
- DBH
- Batxilergoa
- Helduentzako irakaskuntza
- Lanbide Heziketa
- Hizkuntza Eskola
- Arte Eskola
- Besteak

### 3. Ikastetxeko ikasleak osotara

- 0 - 100
- 100 - 500
- 500 - 1000
- 1000

### 4. Ba al du ikastetxeak liburutegi nagusia izateko jarritako eremurik?

- Bai. Zer azalera duen jarri:  8 m<sup>2</sup> baino gutxiago
- 8 - 12 m<sup>2</sup>
- 13 - 19 m<sup>2</sup>
- 19 m<sup>2</sup> baino gehiago
- Bai, badu baina, zerbaitengatik, ez da liburutegizat erabiltzen
- Ez du

### 5. Ba al du bestelako liburutegirik?

- Bai. Zehaztu nolakoa  Ikasgelako liburutegia
- Departamentuko liburutegia
- Irakasleentzako liburutegia
- Bestelakoa
- Ez

## 6. Liburutegia ikastetxeko jarduerak egiteko erabiltzen da?

- Bai. Zehaztu zein jarduera:  Ikus-entzunezkoen gela
- Klase emateko
- Bilerak
- Bestelakoak
- Ez, irakurketarako bakarrik

## 7. Inork hartzen du liburutegiaren ardura?

- Arduradun finko eta iraunkor batek
- Urtero aldatzen den arduradun batek
- Proiektu baten arabera koordinaturik ari diren irakasle batzuek
- Departamentu batek
- Beren lan orduak liburutegiarekin osatzen duten irakasle batzuek
- Irakasle arduradun batek, guraso boluntario batzuen laguntzarekin
- Ez dago arduradunik

## 8. Liburutegiak arduraduna baldin badu, hartu al du berariazko prestakuntzarik bibliotekonomian eta dokumentazioan?

- Bai. Esan zein
- Ez

## 9. Liburutegiak arduradun bakarra baldin badu, zenbat ordu ematen ditu astean liburutegiko lanetan?

- Ordu 1 eta 5 bitartean
- 5 eta 10 ordu bitartean
- 10 baino gehiago
- Bere lan ordu guztiak

## 10. Arduradun bat baino gehiago baldin badaude, astean zenbat ordu ematen dituzte liburutegiko lanetan?

- Ordu 1 eta 5 ordu bitartean
- 5 eta 10 ordu bitartean
- 10 baino gehiago
- Bere lan ordu guztiak

## 11. Zer lan egiten ditu(zte) arduradunak/ek liburutegian?

- Erabiltzaileari kasu egin eta mailegu lana.
- Funtsak katalogatu
- Ikasleak irakurzaletzeko jarduerak antolatu
- Agirien gaineko aholku-lana
- Materialak prestatzea ikasle zein irakasleentzat
- Funtsak erostea
- Beste batzuk



**12. Zenbat denboran egoten da liburutegia irekita**

- Ez dago inoiz irekita
- Atsedendietan bakarrik
- Liburutegiko orduak partez bat egiten dute klase orduekin
- Liburutegiko orduak erabat bat egiten dute klase orduekin
- Bai klase orduetan eta bai kanpo egoten da irekita
- Klase orduen ondotik egoten da irekita

**13. Zenbat liburuk osatzen dute liburutegiaren funtsa?**

- 1.000 baino gutxiago
- 1.000 - 3.000
- 3.000 - 5.000
- 5.000 - 10.000
- 10.000 baino gehiago
- Ez daude zenbatuta

**14. Liburutegiko funtsak katalogatuta al daude?**

- Bai. Zer katalogazio sistema erabiltzen da?
  - Nazioarteko arauak (CDU)
  - Liburutegiko sistema propioa
- Ez

**15. Esan gutxi gora behera zer portzentajetan dauden liburutegiko materialak.**

- % Kontsulta eta erreferentzia lanak (hiztegiak, entziklopediak, bibliografiak, atlasak, datutegiak, urtekariak...)
- % Informazio edo ezagutza lanak (curriculum arlo bakoitzeko gai konkretuen gaineko monografiak, liburu dokumentalak, irakasleentzako materialak, metodologia eta ikasketa tekniken gaineko lanak...)
- % literatura lanak: poesia, teatroa, kontraera...

**16. Aipa itzazu zer beste material dituzun zure liburutegian**

- Aldian behingo argitalpenak (egunkariak, aldizkariak, boletinak, eta abar)
- Ikastetxean egindako dokumentazioa (dosierrak, txostenak, memoriak, lanak, eta abar)
- Ikus-entzunezko baliabideak (diapositibak, filmak, bideoak, kaseteak, CDak, DVDak)
- Dokumentu elektronikoak (ordenagailu programak, CD-Romak, multimedia dokumentuak, eta abar)

**17. material elektroniko eta ikus-entzunezkoa ¿liburutegiak zentralizatuta al dago?**

- Bai
- Ez

**18. Ba al dago erregistro liburirik?**

- Bai
- Ez

**19. Ba al daude katalogoak?**

- Bai. Katalogoa informatizatua dago eta ordenagailuan ikus daiteke
- Bai. Eskuzko katalogoa dago:
  - Tituluka
  - Egileka
  - Gaika
  - CPUaren arabera
  - Bestelakoa
- Ez

**20. Nola daude liburuak apaletan banatuta?**

- Gaika, curriculumara arloen arabera
- CDUren arabera
- Bestelako irizpideen arabera (zikloak, bildumak, erregistro zenbakia, eta abar)
- Ez dago antolatuta

**21. Berritzen al dira alditik aldira liburutegiko funtsak?**

- Bai
- Ez

**22. ¿Liburutegiko funtsa informatizatzen hasia da?**

- Bai. Esan zer programarekin
- Ez

**23. Liburutegia antolatzeko ordenagailua baldin badago, esan zer duen: CD-Rom irakurgailua.**

- Bai
- Ez

**Internet lotura**

- Bai
- Ez

**24. Liburutegian ordenagailu bat baino gehiago baldin badaude, esan zenbat**

**25. Liburutegiak informazio boletinek argitaratzen al du?**

- Bai
- Ez

**26. Liburutegiak mailegua egiten al du?**

- Bai. Esan astean zenbat egunez
- Ez



**27. Liburutegiak ba al du urtero bere-beretzako aurrekontu berezia?**

- Bai. Esan zenbatekoa:
- 300 euro baino gutxiago
  - 300 - 600 euro
  - 600 - 1.200 euro
  - 1.200 - 2.400 euro
  - 2.400 - 6.000 euro
  - 6.000 euro baino gehiago
- Ez

**28. Ba al dago liburutegi edo irakurketa proiekturik, ikastetxeko planetan sartutakorik? Baldin badago, mesedez, bidali proiektua inkestarekin batera.**

- Bai  
 Ez

**29. Parte hartzen al du Klaustroak edo haren parte batek, ikastetxeko Irakurketa Plana itxuratzen?**

- Bai  
 Ez

**30. Egin izan al du zure ikastetxeak jardueraren bat, ikasleak irakurzaletu edo irakurria ulertaraztearen alorrean?**

- Bai (mesedez, kontu ezazu zuen esperientzia hurrengo orrialdean)  
 Ez

**31. Parte hartzen al du edo parte hartu izan du ikastetxeak eskola liburutegi-gaien gaineko prestakuntza ikastaroren batean?**

- Bai  
 Ez

**32. Ba al du harremanik eskola liburutegiak kanpoko erakundeekin?**


- Bai
- Auzo elkarteekin
  - Guraso elkarteekin
  - Besterik
- Ez

**33. Ba al du harremanik eskola liburutegiak beste liburutegiren batekin (aholkuak, mailegua...)?**

- Bai. Zehaztu zer liburutegi motarekin
- ILZko liburutegia
  - Liburutegi publikoa
  - Beste ikastetxeetako liburutegia
  - Besterik
- Ez













## sorta **Urdina**

### **Blitz** Hezkuntza Departamentuan

1. Nafarroako eskoletako liburutegien azterketa: hurbiltze saioa Hobetzeko gakoak
2. Eskolako liburutegia nola antolatu Alderdi tekniko eta pedagogikoak
3. Saillkapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculometan Unibertsitatekoak ez diren eskoletako liburutegietan fondoak gaiz gai antolatzeko jarraibideak
4. Eskola liburutegiaren informatizazioa. ABIES 2.0 programa
5. Eskolako liburutegiko funtsak eta ikastetxeko irakurketa planak
6. Nafarroako eskola liburutegiak 1999 - 2006

## sorta **Berdea**

### **Blitz** Eskolan

1. MARIANO CORONAS Eskolako liburutegia Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea
2. VÍCTOR MORENO Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea Hausnarketak eta proposamenak
3. VILLAR ARELLANO YANGUAS Liburutegia eta ikaskuntza autonomia Baliabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta ballatzeko gida didaktikoa
4. M<sup>a</sup> JESÚS ILLESCAS Eskolako liburutegian nola ikasi eta ikertu Erabiltzaileak iprestarzen
5. C.P. «ÁLVARA ÁLVAREZ» de Falces La formación de usuarios y el uso de la información Una experiencia didáctica en la biblioteca del Colegio Público de Falces (Navarra)

## sorta **Horia**

### **Blitz** irakurztearen alde

1. Ulermenezko irakurketa eskola curriculumean Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
2. JESÚS AMADO MOYA Hizkera zientifikoa eta ulermenezko irakurketa zientzien arloan
3. ÁNGEL SANZ MORENO Ulermenezko irakurketa eta DBH-KO eskola testuak
4. VÍCTOR MORENO Zertarako irakurri? Ulertzeko
5. ÁNGEL SANZ MORENO Nola itxuratu ulermenezko irakurketarako jarduerak
6. Nola prestatu ulermenezko irakurketa plana DBH-ko institutu batean Bi adibide praktikoa
7. NATIVIDAD IRAIZOZ SANZOL FERMIN M<sup>a</sup> GONZÁLEZ GARCÍA El mapa conceptual: un instrumento apropiado para comprender textos expositivos
8. VÍCTOR MORENO Ikasleak irakurzaletzen ahotsa, sentimendua eta sormena erabiliz
9. LUIS IZA DORRONSORO Irakurketa plana Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan
10. Modelo de fondo bibliográfico para una biblioteca escolar de E. Secundaria

## sorta **Gorria**

### **Blitz** idaztearen alde

1. PEDRO JIMENO Idazmenaren irakaskuntza arlo guztietan

## sorta **Laranja**

### **Blitz** ahozko adierazmenaren alde

1. ANA MARTÍNEZ MONGAY Nola prestatu ahozko azalpen bat bigarren hezkuntzako arlo guztietan

# BLITZ

Liburutegiko saga

ESKOLAKO LIBURUTEGIKO BILDUMA